BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
624. zkia.
XV. urtea
2007ko abuztuaren 23a



San Bartolome jaixak

# Fresko hasi eta...

[ LUZEZABAL ] JAIETARAKO AHOLKUAK • [ JAIXETAN ] MUSIKAZ BLAI




# PNEUMAX

KALITATEA ZIURTA-TZEKO
SQS sistema
ISO 9001/EN 29001
Erreg Zk.: 10677-01

## ENPRESA

**PNEUMAX S.A.** enpresan, hau da, Italiako **PNEUMAX S.P.A.**k Espainian duen filialean, 25 urte baino gehiagoko esperientzia daukagu automatizazio pneumatikoaren alorrean.
Gure Elgoibarko instalazioek 1.000 m²-ko azalera dute estrategikoki kokatuta dagoen industri-poligonoan. Zilindroak muntatzeko eta materiala banatzeko dauzkagun metodo aurreratuekin, gure bezeroei zerbitzu azkarra garantizatzen diegu.



## EGITURA

**PNEUMAX S.P.A.** ren egoitza nagusia Lurano-n (Bergamo-Italia) dago, 13.000 m²-ko azalera dauka, goi-mailako koalifikazioa duten langileak ditu, eta etengabe ari da hedatzen. Bost filial ditu Europan eta Ekialdean, hiru Italian eta ehun kontzesionario esklusibista baino gehiago munduan. Era honetan garantizatzen da asistentzia eta produktuen distribuzioa mundu osoan.




## PRODUKTUAK

Gure produktu-gama zabalaren bidez erraz aurkituko duzu automatizazio-behar bakoitzerako produktu egokia. Izan ere, gure produktuak SQSk Ziurtatutako Kalitate Sistemaren bidez (Kalitatearen Ziurtapenerako Erakunde Suitzarra) proiektatu, garatu, fabrikatu, kontrolatu eta merkaturatzen dira, ISO 90001/EM 29001rekin, hain zuzen ere.

- Airearen tratamendurako FRL taldea.
- Mikrobalbulak
- Balbulak eta elektrobalbulak
- Balbula osagarriak eta osagaiak
- Balbulak eta elektrobalbulak hutserako
- ISO 5599/1 banatzaileak
- ISO 6432 mikrozilindroak
- ISO 6432 - VDMA 24562 zilindroak
- Biraketa-unitateak
- Ibilbide laburreko zilindro konpaktoak
- Zurtoinik gabeko zilindroak
- Abiadura-erregulatzaile hidraulikoak
- Gida-unitate linealak
- Txokerako WEFORMA amortiguadoreak

PNEUMAX S.A.
Olaso, 54 • **Tel:** 943 74 41 44-74
**Faxa:** 943 74 40 76
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



IZAN ZIRELAKO GARA
GARELAKO IZANGO DIRA
JAIETAN ERE EUSKALDUN

EUZKO
GAZTEDI

Elgoibarko **EGI**

# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



**ORDUTEGIA**

10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

TEMPUR laxy Mediterráneo sonpura OLDSAN MASH




Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

# LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

# ZOZOAK BELEARI...



**AITZOL GARMENDIA**

Sare,

07.07.07an aukeratu ditizten munduko 7 Mirari berriak: Txinako harresi handia, Petra Jordanian, Rioko Kristo Askatzailea, Machu Picchu Perun, Chichén Itzá mexikarra, Erromako Koliseoa eta Taj Mahal Agran, India aldean. Aintzinateko eta ertaroko zerrendak eguneratuta hortaz.

Grekeraz monumentu hauei aditzera egiteko theamata terminoa erabiltzen zitenan, ikusi-beharrekoa, miraria baino gehiago.

Bizantzioko Filok idatzi zuen lehenengoz Aintzinateko Zazpi Mirarien inguruan duela 2.200 bat urte. Gizeh-ko piramideak ditun zutik dirauten bakarrak, oinarri onak hauek. Filoren hitzetan "Mundua zeharkatu eta gero, bidaiaren ahaleginak akituta soilik asetuko du norberak Munduko Zazpi Mirariak ikusteko grina, eta behin lortu duenean, zaharra eta hiltzorian izango da".

Orain ostera, 2.200 urte geroago, zozokeri hau milaka kilometro eta ozeano zabal bat tarteko dinagula idazten ari gaitun. Nik ekin, hiri bidali eta gero Merkatu Plazako sotoko erredakziora.

Hegaldi azkarrak, e-maila, telefono mugikorrak, sateliteak eta mudua gero eta txikiagoa... Orain urte batzuk, ez hainbeste, gure arbasoek ez zitenan Euskal Herria baino ezagutu. Hi ostera autobusa hartu bahu bezela joan haiz Ameriketara!

**«Autobusa hartu bahu bezala joan haiz Ameriketara»**

AITZOL

**«Michearekin topa egingo diagu Sanbartoluak ondo hasteko»**

SARE



**SARE GURRUTXAGA**

Itsasora jaurtikitako botilaren beharrik gabe iritsi zaidak hire eskutitza beste alde hontara, Aitzol, azkar, berehala.

Arrazoi duk mundua txikiagoa dela diokenean.

Baina aldi berean, zenbat eta eskurago izan munduko hainbat eta hainbat txoko, orduan eta handiagoa iruditzen zaidak bizi garen lur hau. Geroz eta gauza gehiago ikusteko gogoa zainetan. Baina beti ez zagok modua.

Akaso ez diagu sekula hik aipaturiko munduko zazpi mirarietako bat bera ere ikusiko, baina hemen, hor eta han ikusi eta sentitu beharreko milaka mirari zaudek.

Gure kasuan, Venezuelak goxo hartu gaitu bere besoetan.

Mendiz inguratuta gaudek Andeen itzalpean.

Ederra duk benetan hau guztia. Halere, Euskal Herriko edertasunaz eta bizimoduaz sarri oroitzen duk bat urruntasunetik bidalitako begiradaz.

Hor zaudek, hor bestaldean, nire zazpi mirariak bat eginda.

Zapi gorria ez diat hona ekarri, baina Chavezi eskatuko zioat alkandora besterik ezean, eta goizeko seiretako kanpai hotsekin batera, michearekin topa egingo diagu Sanbartoluak gogoz hasteko.

Ondo pasau danok!

> HELMUGA ABIATZEA DA
>
> Giuseppe Ungaretti

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

“ESCAPE” MOTOR TALDEA

# San Bartolome jaietarako motorrak prest!




Motorren kontzentrazioa izango da aurtengo jaietako berrikuntza bat. Irailaren 2an, domekan, Elgoibarko eta inguruko herrietako motorzaleak bilduko dira gure herrian. Motor hotsak izango dira egun honetako protagonistak eta gasolina usainarekin bukatuko dira San Bartolomeak. “Escape” taldetik esan digutenez, 300 motor inguru elkartuko dira.

Goizeko 11:00etan elkartuko dira denak Plaza Handian. Eguna ganoraz hasteko hamaiketakoa egingo dute bertan eta ondoren, errepidera aterako dira. Bi erruberatan egingo dituzte 80 kilometro inguru: Elgoibartik San Migelera igoko dira, ondoren Markina, Ondarru, Deba, eta Itziar pasatuko dituzte eta Arronara iristean, mokadutxoa egingo dute. Atsendealdiaren ostean, Azpeitira joango dira, ondoren Azkoitira eta Elgoibarren emango diote ibilbideari amaiera. Eguerdiko 13:00ak aldera iritsiko dira Plaza Handira. Motorrak bertan aparkatu eta motoristek Sigman egingo dute bazkaria.

## EURIA MOTORREN ETSAIA

Bizikletak udarako direla erakutsi digute betidanik, eta motorrak ere bai. Errepidea lehor egotea oso garrantzitsua da motorrean ibiltzeko, euria da motoristen etsairik gogorrena. Horixe adierazi digu “Escape” taldeko Venerando Cid elgoibartarrak. Ilusio handia jarri dute ekitaldi honetan, baina euria egiten badu, dena bertan behera gelditzeko arriskua dago.

## “ESCAPE” TALDEAREN HASTAPENAK

Elgoibarren motorzale asko dago. Venerando Cid-ek esan digunez, 150 lagun inguru izango dira motorrean ibiltzeko ohitura dutenak. Beraiek ere, lagun artean domeketan motorrean ibilbideak egiteko ohitura daukate. Baina ohitura hori aspaldikoa da. Duela 30 urte inguru osatu zen taldea. Antonio Fernandez, Jose Robledo, Ramon Ortega, Jose Luis Fernandez (†), Migel Osoro, Antonio Perez, Iñaki Alberdi (†) eta Juan Manuel Torres izan ziren motor talde honen sortzaileak. Antonio Fernandez eta Torres izan ziren garai hartan A8 autopista zapaldu zuten lehenengoak: “oraindik autopista ireki gabe zegoen eta San Roketik Ermuraino joan ziren bi hauek motorrean, 49cc-ko motorrekin”, esan digu Venerandok. Plaza Txikian zegoen forjaren beheko aldean txabola bat zuten eta bertan prestatzen zituzten motorrak. Esan digutenez, ingurune honetako bizilagunek gogoratuko dute oraindik, izan ere, zarata jasanezina ateratzen baitzuten.

[b]
barren
Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Irati Agirrezaldegi PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.650 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

### Hegaluze dastaketa

# Kalitatezko 1.000 hegaluze pintxo banatuko ditu Danborradaren Batzordeak

Trinitateetako Danborradaren Batzordeak hegaluze dastaketa antolatu du Udalaren laguntzaz. Abuztuaren 26an, Jubilatuen Egunean, hegaluzea erreko dute goizean hasita, eta eguerdiko 12:00etan hasiko dira pintxoak banatzen. Jose Inazio Atorrasagasti oriotarra izango da hegaluzea parrillan erretzeko arduraduna. "Euskal parrilla" izeneko enpresa dauka gizon honek eta urte osoan zehar aritzen da herriz herri jaki desberdinen dastaketak antolatzen. Urtean zehar sardina dastaketak antolatzen ditu eta uda sasoian hegaluzearenak. Dagoeneko, Arrasate, Orio edota Azpeitian ibili da eta domekan iritsiko da gurera. Dena dela, ez da Elgoibarrera etortzen den estreinako aldia, izan ere, Danborrada Batzordeak antolatutako sardina dastaketan ere, bera izan zen parrillaren arduraduna.

### 1.000 pintxo eta sagardoa

Goizean goiz sokamuturra izango da herriko kaleetan. Zezenaren aurrean korrika egiten galdutako indarrak ondo baino hobeto berreskuratzeko, hegaluze pintxoak jatea aukera ezin hobea da. Danborrada Batzordeko kideak arituko dira Jose Inazio Atorrasagasti parrilla-gizonari laguntzen, eta pintxoekin lortutako dirua datorren urteko danborrada antolatzeko erabiliko dute. 1.000 pintxo banatuko dituzte, bakoitza euro batean. Zapirain sagardotegiaren eskutik sagardo barrikak jarriko dira, euro batean edalontzia erosita, nahi beste sagardo edateko aukera izango da. Txotx!




### Eusko Label

Hegaluzea kalitatezkoa izango da, Eusko Label etiketadun hegaluzea izango da hain zuzen ere, eta gainera, arrantzale euskaldunek harrapatutakoa. Bermeo, Orio, Getaria, Hondarribi eta beste hainbat herritako arrantzaleek harrapatutako hegaluzea probatu ahal izango dute Nafarroa Plazara gerturatzen diren herritarrek.

Aurtengoan 18 urte bete ditu Eusko Label etiketak eta logotipo berria egin dute. Hori promozionatzeko, pegatinak, globoak eta aurrentzako hegaluze maskarak banatuko dira ekitaldian zehar. Ez ahaztu beraz, uda honetan oraindik hegaluzea probatu ez baduzue, oraintxe da zuen aukera.

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

ERREKORTATZAILEAK OZTOPOEKIN

# Zezenaren adarrak, urrutian edarrak



Esaera zaharrak dioen moduan, zezenaren adarrak ederrak dira urrutian daudenean. Gertutik beldur gehiago ematen dute, ordea. Hala ere, badira zezenaren adarrak gertu izatea gustuko dutenak ere. Aurtengo San Bartolome jaietan errekortatzaileak izango ditugu. Txiki Egunean izango dute zita Plaza Txikian Arnoren zezenekin.

Gipuzkoako bost errekortatzaile etorriko dira eta bakoitzak bere abileziak erakutsi beharko ditu zezenaren aurrean. Oztopo desberdinak jarriko dira Plaza Txikian, besteak beste, eskaileradun piramideak eta taula karratu bat izango dira errekortatzaile eta zezenek gainditu beharreko oztopoak. Nafarroa eta Errioxa aldean errekortatzaile ekitaldiak antolatzeko joera handia dago, eta txapelketak ere egiten dira. Elgoibarkoa ikuskizuna izango da soilik.

### EKITALDI BAKOITZERAKO ZEZEN DIFERENTEAK

San Bartolome jaietan leku handia hartzen dute zezenek. Arno baserrikoek lan handia izaten dute jaietan zehar, beraiek ekartzen baitituzte zezenak. Guztira 180 zezen inguru dituzte. Agustin Mugerzak azaldu digun bezala, ekintza bakoitzak zezen mota bat eskatzen du eta egun batean erabilitakoak hurrengo egunetan deskantsua behar izaten dute. Errekortatzaileen ikuskizunerako bigantxa eta zezen enbolatuak aterako dituzte. 6 edo 7 zezen ekarriko dituzte eta bakoitzak bost minutuko jarduna izango du.

Sokamuturra izaten da zezen jardueren erregea, eta Agustinek esan digunez, bera da lanik handiena ematen duena: "3 orduko ekitaldia izaten da eta zezenaren sokatik tiraka ibiltzea neketsua da". Lurra bustita egoten da eta zezenak izugarri sufritzen duela azaldu digu, kolpe txarrak hartzen ditu, lurrera erori, asfalto gainean korrika egin...

Umeei ere gustatzen zaizkie zezenak eta azken urteotan beraientzako entzierroa ere izaten da. Ekitaldia norentzat den kontuan eduki behar da zezenak aukeratzeko. Umeen egunean zezentxo txikiak eta zalditxoak ekartzen dituzte umeek goza dezaten. Zezenarekin futbolean egiteko, berriz, zezen azkartxoagoak. Bakoitzari berea.

USATORRE
Taberna
San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99
Jai zoriontsuak igaro!

Gorbea TABERNA
Jai zoriontsuak!
Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80



Olaso industrialdea, 15 (55 E lokala)
Tel. 943 74 05 33 - Mugikorra: 675 70 87 39

Gabi jatetxea






Ez galdu
San Bartolomeetarako
prestatu dugun
menua!

Nafarroa enparantza • Tel.: 943 74 12 30

# [ OSASUN GIDA ]

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda
("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

## OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## HORTZ KLINIKAK

Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

## FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia
Eragozpen fisikoa egongo balitz etxez etxeko zerbitzua eskeintzen da.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsaldez)
Jausoro, 6 behea

Amalurra Fisioterapia
Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsaldez.
San Frantzisko, 58 behea (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

## PODOLOGOAK

Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

# MERKATU PLAZA

*Uste duzuna baino gehiago!*



**Amaia** FRUTADENDA



**Arantxa** eta **Marian**
FRUTADENDA



**TXILARRE** BARAZKIAK
Elikagai ekologikoak



**IBARRE** OKINDEGIA



**FRAILE** HARATEGIA



**MARI** HARATEGIA



**ERMELA** URDAITEGIA



**M. Angeles**
FRUTADENDA



**TXIRIBOGA** TABERNA



**PAGOA** LORADENDA



**ZABALA** FRUTADENDA



**Zabala**
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

*San Bartolome jai zoriontsuak!*

# Edergintza

## Uda ostean azalari lagundu

       

*Uda joan zaigu eta gure oroimenean bezala, azalak berean gordetzen duen informazioak gauza desberdinak adierazten dizkigu. Adibidez, eguzkiak eragindako deshidratazioa, melaninak eragindako mantxak . . . Eta batez ere, guztion arazoa dena eta atzera bueltarik ez duena, gu bezala, urteak pasa ahala, azala zahartu egiten da. Hau guztia ahalik eta ondoen saihestea da onena eta horretarako tratamenduak aurkeztuko dizkizuet gaurkoan.*

Azalak bi motatakoak izan daitezke: epidermikoki O/A emultsiodunak (ura oliotan) edo A/O emultsiodunak (olioa uretan). Hauen artean egoera desberdinak ditugu: azal normala, lehorra, asfisiatua eta koipetsua. Egoera hauetan gorabeherarik ez bada sortzen, ez dago arazorik, baina azalaren oreka galtzen denean arazoak sortzen dira. Azal lehorretan adibidez, olio falta edota ur falta. Azal koipetsuek ere eduki dezakete deshidratazioa. Mantxen arazoa bestalde, edozein azaletan gertatu daiteke.

• Tratamendu hidratatzailea: oso garrantzitsua da azalaren ur kantitatea mantentzea, hauxe da tratamendu honen zeregina. Eskamazioak, azal tirantea, azkura... igarri daitezke deshidratazioa dagoenean.

• Tratamendu elikatzailea: koipe falta duten azalentzat. Normalean ez dira ia poroak ikusten, azalean gorritasunak azaltzea da ohikoena. Azal finak izaten dira.

• Retinol: zimurrentzat, batez ere, azal nagusietan edota 30 urtetik aurrera, prebentzio bezala. Irailetik aurrera egiten da normalean tratamendu hau, ez baita komeni retinol-a eguzkiarekin kontaktuan jartzea.

• Kolageno eta elastina: biguntasun arazoa dagoenean. Azal koipetsuek jasaten dute, batez ere, baina guztioi iritsiko zaigu arazo hau. Bi elementu hauek azala tiratu egiten dute, bere lekura bueltatuz.

• C bitamina: eguzkia hartu ostean da egokia tratamendu hau, uda ostean. Azal guztientzat, oxidazioari aurre egiteko.



• Despigmentazioa: hipermelanizazioa dagoen zonatan azala zuritu egiten da, mantxak disimulatzean datza (batzutan desagertuz). Eguzkia ez dagoen fetxatan egitea komeni da, eguzkitako babes totala erabiliz.

• Oxigenatzailea: toki itxietan lan egiten duen jendearentzat. Azala oxigenatu egin behar da ez lehortzeko eta zimurrak ez azaltzeko. Erretzen dutenentzat ere egokia da.

*Olaia Martinez- Olaia Estetika*

Olaia
estetika
Egin ezazu otsailean laser depilazioa eta ahaztu udan depilatzeaz.
San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25
• Garbiketak
• Makilajeak
• Aurpegi-tratamenduak
• Gorputz-tratamenduak
• Solariuma (horizontala eta bertikala)
• Masajeak
• Manikurak
• Depilazioak

Judith
EDERGINTZA
Errosario Kalea,19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118

## JAIAK ONDO PASATZEKO AHOLKUAK

# DENA LIBRE AL DA JAIETAN?

*Jaiak, festak, parrandak... nork nahi ditu arauak egun horietan? Zertarako arauak? Askok pentsatuko duzue jaietan dena libre dela eta gainera, arauak apurtzeko direla, ezta? Ez da ba horrela. Jaiak ondo pasatzeko aholkuak kaleratu ditu Udalak egitarauarekin batera. Herritar guztiak ondo baino hobeto pasatzeko aholkuak dira.*

San Bartolome jaietan ekitaldi desberdinak izaten dira. Horietako asko ikustekoak dira soilik eta ez daukate inolako arriskurik. Baina beste ekitaldi batzuk antolatu ahal izateko, Udalak egunerokotasuna apurtu behar izaten du, eta herritarrak berrikuntza horietara moldatu behar izaten dira, gauzak ondo atera daitezen. Besteak beste, herri barrua itxita egoten da trafikoarentzat zenbait egunetan, Plaza Txikian zezen plaza jartzen dute eta sokamuturra egunetan autoak ezin dira edozein lekutan aparkatu.

Duela pare bat urte kaleratu zituen estreinakoz Udalak jaietarako aholkuak, eta urtetik urtera gehituz doaz. Gaurkoan, Blanca Salegi Kultura Zerbitzuko teknikariekin egon gara aholku hauei buruz berbetan. Argi eta garbi esan digu, "aholkuak dira, gomendioak, ez da inposaketa bat, baina aholku batzuk zorrotz bete behar dira".

### Aholkuak, banan-banan

**1.- Arazo larririk izanez gero, Udalak, antolatuta dauden jarduerak aldatu edota bertan behera uzteko aukera izango du.**

Kulturatik jakinarazi digutenez, gutxitan gertatzen zaie ekitaldiak aldatu edota bertan behera uztea, baina edozein arazoren aurrean, Udalak aukera hori eduki behar du.

**2.- Ertzainen, udaltzainen eta udal-langileen esanak betetzea eta Gurutze Gorriko eta Babes Zibileko langileen jardunak ez oztopatzea eskatzen zaie herritar guztiei.**

"Gauza logikoa da hau", esan digu Blancak. Hala ere, jaietan jendeak dena libre dela uste du, eta gainera nahi dutena egiteko eskubidea daukatela uste dute.

"Goiti Beherak daudenean esate baterako, toki batzuk arriskutsuak dira begira egoteko eta esaten zaie han ezin direla jarri, baina berdin zaie". Honelako egoerak ebitatu egin behar dira, ezbeharren batek jai giroa erabat zapuzten dueta.

**3.- Parte hartu, gozatu, baina beti ere, besteak errespetatuz.**

Jaietako jardueretan herritarren partehartzea ezinbestekoa da, baina kontutan eduki behar dira gainontzeko bizilagunak. Errespetua oinarrizko araua da, "jende guztia errespetatu behar da jaietan ondo pasatzeko", esan digute Kulturatik.







**4.- Guztion onerako izango delako, zaindu kaleko tresnak, lorategiak, kaleak, plazak, e.a.**

Herriko elementu apaintzaileak denonak dira, denon artean ordaintzen dira eta urte guztian bezalaxe, jaietan ere zaindu egin behar dira. San Bartolomeek ez dute ematen lorontziak edota jarlekuak puskatzeko lizentzia.

**5.- Ez oztopatu Udal-langileen eta garbitzaileen lanak.**

"Batzuek jaiez gozatzeko besteak lanean aritu behar dute", esan digu Blancak. Goizetan kale garbitzaileak euren lana egitera ateratzen dira eta San Frantzisko kalean zailtasun handiak izaten dituzte, parrandan dabilen jendeak ez die batere errazten euren lana.

**6.- Debekatuta dago, suziriak, lehergailuak edo antzekoak saltzea.**

Blancak esan digunez, aspalditik datorren kontua da hau. Barraketako jendearentzako debekua da, batez ere. Umeek erosten dituzte suziri eta lehergailuak eta gero ezbeharrak gertatzen dira. "Urte asko dira honelako elementuak saltzea debekatu genuela".

**7.- Debekatua dago 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.**

"Tabernarientzako mezua da hau". Urte guztian zehar ere, indarrean dagoen legea da, "baina gogoratu egin behar izaten dugu. Jaietan gauzak ahaztu egiten dira".

**8.- Edaten baduzu, ez hartu autorik.**

"Honen gainean ez dago ezer esan beharrik, zentzuz jokatzea bakarrik eskatzen dugu", adierazi digu Blancak.

**9.- Garraio publikoa erabili ezazu:** abuztuaren 25ean eta irailaren 1ean, Euskotrenek, gaueko tren zerbitzu berezia eskainiko du; orduka trenak izango dira bai Debaraino, baita Ermuraino ere.

Azken urteotan bezalaxe, jaietako zapatuetan tren zerbitzu berezia jarriko dute, jendea arazorik gabe etorri eta etxeratu dadin.

## Sokamuturra

San Bartolome jaietako ekintza nagusienetarikoa da sokamuturra, eta horretarako arau batzuk daude: 14 urtetik beherakoak ezin dira sokamuturrean ibili. Blancak esan digunez izugarri kostatzen zaie arau hau betearaztea, jendeak ez omen du ulertzen: "ume asko ateratzen dira sokamuturrean eta arriskutsua da benetan. Arau hau nahi eta nahi ez bete behar da".

- **Ibilbidea:** Pedro Muguruza etorbidea, San Frantzisko, San Bartolome, Errosario, Antonio Arrillaga, Santa Ana eta San Inazio kaleak
- **Egunak:** abuztuak 26 eta 27, eta irailak 1
- **Ordutegia:** 8:00-11:00
- **Trafikoa ibilbidean:** 7:00etarako kotxeak erretiratu behar dira. Sokamuturra amaitu arte, zamalanik ezin da egin.
- **14 urtetik beherakoek** ezingo dute zezenetan parte hartu

## Trafikoa

Jaietan zehar trafikoa moztuta egoten da egun batzutan, eta beste batzutan, ordu batzuk soilik erabili daitezke kotxea herrian sartzeko.

- 23an, 11:00ak arte libre
- 24an, 25ean, 26an, eta 27an, itxita
- 28an, 29an, 30ean, eta 31n, 7:00etatik 11:00etara irekita
- 1ean, itxita

KARTEL LEHIAKETA

# Mikel Cornejok irabazi du bigarren urtez jarraian San Bartolome jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

Mikel Cornejo elgoibartarraren lanak iragarriko ditu San Bartolome Jaiak. Programaren azala aukeratzeko lehiaketa berak irabazi du bigarren urtez jarraian. Sari berezia, berriz, Ander Sanchezek irabazi du, hau ere elgoibartarra. 500 euroko saria jasoko du Mikel Cornejok; 250 eurokoa, berriz, Ander Sanchezek.

Elgoibarko jaietan hain esanguratsua den sokamuturra du gai Cornejoren lanak, sokamuturraren abiadura, hain zuzen ere. Izan ere, zezena lepoan soka duela, korrikalari bat eta zapi gorria agertzen dira modu lausotuan, abiadura sentsazioa emanez.

Aurten 11 lan aurkeztu dituzte artistek lehiaketara, iaz baino hiru kartel gutxiago. Egur Taldeko bazkidea Maribel Vazquezek, Kokoe taldeko bazkide Iñaki Raigosok, Gemma Monreal margolariak, Alberto Garcia Kokoeko sortzaileak eta Jokin Martinez, Ongarri argazkilari taldeko lehendakariak osatu dute kartel irabazlea aukeratu duen epaimahaia.

Sari banaketa San Bartolome Bezperan, abuztuaren 23an egingo dute, 20:30ean udaletxeko udalbatzarren aretoan.






### Artista txiki gutxik egin dituzte jaiei buruzko marrazkiak

Azken urteotako ohiturari jarraituz aurten ere antolatu dute umeentzako kartel lehiaketa; baina oso ume gutxik hartu du parte, zortzi lan baino ez dituzte jaso. Hortaz, erabaki dute guztiei saria ematea. Honakoak dira kartelen egileak: Nerea Bastida, Lide Baz, Maria Ruiz de Gauna, Itxaso Rodriguez, Gorka Baz, Itziar Aldalur, Nora Bastida eta Gorane Aiesta. Dena den umeek jaietan izango dute beste aukera bat aire libreko marrazki lehiaketa egongo baita abuztuaren 31n. Gaia izango da: *Zer nahi zenuke jaietan egotea?*

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
- INPRESIO DIGITALA

Ondo pasa jaiak!

Sigma industrialdea.
Xixilion 2 - 2. solairua - 7 lokala - **ELGOIBAR**
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
E-posta: debape@telefonica.net

MUEBLES
Almacén
Tel./Faxa: 943 742 941
Urasandi, 2 - 1
Elgoibar



LEIGAR ELEKTRAGAILUAK

MANU LEIZABE LOYOLA





TB · BIDEOA · HI-FI · DVD

*Salmenta eta zerbitzu teknikoa*

*Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54*

URDAITEGIA - JANARIDENDA

DORI

Errosario kalea, 29
Tel.: 943 74 11 92 /943 74 10 25

- Produktu iberikoak
- Hestebeteak
- Urdaiazpikoak
- Kontserbak
- Gaztak / Pateak





JATETXEA

GORBEA

Ondo pasa jaiak!



**Jaietarako Menu Berezia**

Entsalada mistoa, fritoak eta urdaiazpikoa

..............

Haragi-xerra, eskalopea, entrekota edo legatza

..............

Ogia, postrea eta ardoa

**20 €**

Santa Ana, 10
Tel: 943 74 05 80


BIOK
DEKORAZIOA
www.biokdekorazioa.com
ASKETA
ERREFORMAK, S.L.
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!
K21
Ondo pasau jaixak!
· Fatxadaren erreabilitazioa
· Apaintzeko pintura
· Pareta lisoak
· Parket flotatzailea
· Pintura orokorrean
Santa Klara, 26 behea ezkerra · Tel.: 943 74 15 52 · Mugikorra: 606 43 11 20 · Faxa: 943 53 17 35


Lanbroa
Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak
PLATER KONBINATUetan aukera zabala
Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06/943 74 38 11


arkhiruarkitektoak
Xixilion 2bs 1 SIGMA-ELGOIBAR telf-fax: 943743145 ark3arkitektoak@coavn.org
HIRIGINTZA ETA ERAIKUNTZA LANAK
Obra Berriak / Eraberritzeak / Barne Diseinua
Etxebizitzak / Pabilioi Industrialak / Lokalak / Igogailuak
Obra Lizentziak / Jarduera Lizentziak
Ziurtagiriak / Txostenak / Eraikuntzen ITEak / Neurketa
Paisajismo Lanak / Lorategi Diseinuak

ETXEKIT
Luis F. Beristain



xey SUKALDERAKO ALTZARIAK
FORMA
banatzaile ofizila
Ondo pasa jaiak!
12 urteko bermea
Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 74 43 47

EIZAGUIRRE
OKINDEGIA
LANTEGI PROPIOA
Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...
"Betiko ogia"
Ondo pasa jaiak!



San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88

Ondo pasa jaiak!
Alboan inmobiliaria
ALTZOLA



• 3 logelako etxebizitzak terraza zabalekin. • Duplex-ak.
• Toki lasai eta loretsua. • Lehen urteko asegurua dohainik.

EZCARAY



• 2 eta logela bateko apartamentuak
• 2 logelako duplex-ak

LA MANGA
(Murtzia)



POLARIS WORLD

Errosario, 12 - Tel.: 943 74 06 73 / 656 79 71 69 - E-posta: alboaninmobiliaria@euskalnet.net

disArt
diseinu estudioa

-DEKORAZIO AHOLKULARITZA

-PLANO TEKNIKOAK

-BEZEROAREN AURREKONTUARI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK

-GREMIOEN KOORDINAZIOA

-ALTZARIAK

Pedro Muguruza Etorbidea 5 Elgoibar
Tel/fax: 943 743245
disart@disartestudio.net
www.disartestudio.net



MADIGAN´S
IRISH PUB



• Gosariak
• Ogitartekoak
• Razioak
• Sandwichak
• Entsaladak
• Postreak
• Plater konbinatuak



GIRORIK ONENA!

Ordutegia: Igandetan, 10etatik aurrera
Astelehenetik larunbatera 7etatik aurrera

Bernardo Ezenarro, 2 behea
Tel.: 943 53 15 57

# San Bartolomiak 07

## Egitaraua

## alkatearen agurra

Elgoibartar agurgarriak

Udako opor giro honek eskaintzen didan aukera aprobetxatu nahiko nuke herritar guztiongana zuzendu eta San Bartolome jai alai eta zoriontsuak opatzeko.

Asko izango zarete jaiak ospatzera herrira etorriko zaretenok, beste batzuk bertan egongo gara, baina badira gure artean egon ezingo direnak ere, hortaz, horiek ere gogora ekarri nahiko nituzke hitz hauen bidez.



Aurten Euskal Jaien mendeurrena ospatzen dugu, eta urtean zehar izan ditugun eta izango ditugun ekitaldiez gain, jaietan ere izango dugu aukera gure herriko aberastasun kulturalaz (ohiturak, musika, dantza, eta bestelako tradizioak) gozatzeko.

Hori dela eta, herritar guztioi eskatu nahi dizuet zuen ingurukoei, senideei, adiskideei, jaietan, gure artera hurbiltzeko gonbitea egin diezaiezuela.

Eta aukera bikain hau aprobetxatu nahiko nuke umetan eskolan Elgoibarri buruz ikasitako bertso hau zuei guztioi helarazteko eta denok ikasteko

*Mendi tontorrez koroaturik*
*Morkaikon zutik gurutzea*
*zelai onetan ibai ertzetan*
*Elgoibarrek du bizitza*
*gure txokoa maite goxoa*
*goratzen dizu bihotza.*
*Baserri txuriak edonon ageri*
*sei aldeko bailaretan*
*kale luzeak, plazak eder txukunak*
*eliz dorre dotorea*
*lanean trebe hizketan leial*
*garbi kementsu jokatuz*
*jainkoaren ta giza legeak*
*zintzoki betetzen ditu*
*elgoibartarrak beti dirade*
*ondo hartuak edonun*
***Aupa Elgoibar***
*Ondo hartuak edonun.*

Aukera honetaz baliatzen naiz, nire begirunerik zintzoena adierazteko.

Ondo pasa jaietan

**Alfredo Etxeberria**

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Lanbroa


Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera
Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estalitura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 570

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

URKIDI AHOLKULARITZA
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12
Liberty Aseguruak

# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, *eguena*

**9:00 LXI MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**
Elite Mailako Amateurrentzat (20-23 urte). Gure Bide Elkarteak antolatuta.
Irteera: Plaza Handian
Helmuga: Santa Klaran



**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI HOTSA**
Ikurrina jasoko da jaiei hasiera emateko.
Plaza Handian.



**Ondoren,** Mauxitxa Txarangaren kalejira.

**16:00-20:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian eta Plaza Txikian.
(Euria egiten badu, Ikastolan).

# *Egitaraua*



**16:30 IZUGARRIZKO SORPRESA**
Zaharren Biltokian.

**17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.

**18:00 FUTBOL PARTIDUA MINTXETAN**
C.D. Elgoibar-C.D. Anaitasuna
Antolatzailea: C.D. Elgoibar.

**19:00 KIROL ARGAZKIEN ERAKUSKETA**
Kultur Etxeko sotoan.

**20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA**
Udalbatza San Bartolome Parrokiara joango da, aurretik Alkate Soinua joz, Udal Txistulari Taldeak lagunduta.



**Jarraian,** Kartel Lehiaketako eta Kirol Argazki lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira Udaleko Pleno Aretoan.

**23:00 "NEUROTIKA" ETA "BETAGARRI" TALDEEN KONTZERTUA.**
Plaza Handian.


Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX


Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7
Tel: 943 74 16 76

Gloria
Upai Zaharra, behea
Tel.: 635 74 71 45
okindegia







# San Bartolome Eguna

## ABUZTUAK 24, *barixakua*

**9:15 HERRIKO DULTZAINEROEN DIANA**

**9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**

**10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**



**10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udal Musika Bandak, Txistulari Taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome Parrokiara joango dira Meza Nagusira. Mezatan Parrokiako Abesbatzak kantatuko du.

**Jarraian, SOKA DANTZA** Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin Plaza Handian.



**Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Plaza Handian.

# Egitaraua

**16:30-21:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian eta Plaza Txikian.
(Euria egiten badu Sigman).



**17:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako Frontoian.



**19:30 MENSAJEROS DE IRAPUATO MARIATXIEN KALEJIRA**

**23:00 SU ARTIFIZIALAK**
Zaragozana Piroteknarekin IMHko aparkalekuan.

**Jarraian, MENSAJEROS DE IRAPUATO MARIATXIAK eta DUO PLAENTXI TALDEEN KONTZERTUA**
Plaza Handian.


Laguarin
PANADERIA * OKINDEGIA
• Baserriko produktuak • Taula iberikoak • Gabonetako otarrak
• Ardoa, txakolina eta sagardoa
San Bartolome, 10 - Tel.: 637 51 22 24

INMUEBLE AGENTZIA
ARBELOA
INMOBILIARIA
Jai zoriontsuak!
arbeloa@telefonica.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27

NORFO s.l.
Ondo pasa jaiak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

OLATZ, s.l.
SUKALDE eta KOMUNERAKO ALTZARIAK
Aulki eta mahaietan aukera bereziak
Pedro M. Urruzuno, 8 Tel: 943 74 38 44

press to
Kalitatezko tindategia
Kalitatezko tindategia
Arropen eraldaketa eta konponketa
San Frantzisko, 32 Tel. 943 74 35 08

Aramburu
Bitxidenda
Ondo pasau San Bartolome jaixak!
San Frantzisko, 26 - ☎ 943 74 25 35




# Baserritarren Eguna

## ABUZTUAK 25, *zapatua*

**9:30 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGI-ETORRIA**
Plaza Handian, Haritz Dantzari Taldearen eta Udal Txistulari Taldearen eskutik.

**10:00 EUSKADIKO LIMUSIN ABELGORRIEN XIV. TXAPELKETA**
Plaza Txikian.

**Jarraian, BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**11:00 XXIV. SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTAKETA**
Plaza Handian, Sallobente Elkarteak antolatuta.

**13:30 GANADU ENKANTEA**
Plaza Txikian.

**14:00 SARI BANAKETA**
Plaza Handian

**14:30 BASERRITARREN ANAIARTEKO BAZKARIA**
Zaharren Biltokian.

**17:00 BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**



**18:00 SAN BARTOLOMEETAKO IX. HARRIJASOTZE TXAPELKETA**
Plaza Handian.

**23:00 GOLDEN APPLE QUARTET TALDEAREKIN EMANALDIA**
Plaza Handian.

*Egitaraua*

# Jubilatuen Eguna

## ABUZTUAK 26, *domekia*

**7:45 IDIARENA**
Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA**
Arnoren zezenekin, King-Kong parean hasita.



**12:00 HEGALUZE DASTAKETA**
Nafarroa Plazan, Danborradaren Batzordeak antolatuta.

**12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA**
San Bartolome parrokian.

**14:00 JUBILATUENTZAKO BAZKARIA**
Olaizaga kiroldegian, Eguren Orkestrak alaituta.



**17:00 UMEENTZAKO ZEZENTXO ETA PONIAK**
Aita Agirre Plazan, euria egiten badu Sigman.

**19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA**
Plaza Handian.

**22:30 "PATXI ETA KONPAINIA" TALDEAREKIN DANTZALDIA**
Plaza Handian.


Elgoibarko Institutuak
Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net



eta
Herri Eskolak
Kalamua, 18
Tel.: 943 74 08 79



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE!

MILENIUM XARMANT

XARMANTen edozein aseguru mota kontratatzeko beharrezkoa duzun laguntza eta informazioa emateko lan egiten dugu, ahal den arinen eta eraginkortasun handienarekin.

Irailaren 10etik aurrera Trenbide kaleko lokal berrian aurkituko gaituzu.

ZURE ESKURA GAUDE!

Trenbide kalea, 21 behea
Tel.: 943 74 80 92
Faxa: 943 74 82 42

elgoibar

48 etxebitza, 2 eta 3 logelakoak
117 garaje eta 76 trasteleku



infolur
Tfno.: 943 74 80 92
Fax: 943 74 82 42
www.infolur.net
www.residencialgeminis.com

Ondo pasa jaiak!

## Txiki Eguna

### ABUZTUAK 27, *astelehena*

**7:30 DIANA** Mauxitxa Txarangarekin eta Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.



**Jarraian, SALDA eta TXORIZOA**
Zubi-ondo, Gure Bide, Karakate eta Herri Gain elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:00 HAURRENTZAKO ZEZENTXO ETA PONIAK**
Plaza Txikian.



**12:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako Frontoian.

**18:30 ZEZEN ETA BETIZU ENBOLATUAK ERREKORTATZAILE ETA OZTOPOEKIN**
Plaza Txikian.

**19:00 "THE MCKENSY'S CLAN BAND" TALDEAREN KALEJIRA**

**22:30 EGAN TALDEAREKIN DANTZALDIA**
Plaza Handian.

# LERUN JATETXEA

*Ondo pasa San Bartolomiak!*



## Ordutegia

Astelehenetik ostiralera
7:00etatik aurrera
Larunbatetan
8:00etatik aurrera
Igandetan
11:00etatik aurrera

Eguneko menuak • Asteburuetan bazkari eta afariak

**SAN BARTOLOMETARAKO MENU BEREZIA PRESTATU DITUGU**







- **Wifi**
- **Ospakizunak**
- **Pintxoak enkarguz enpresetara eramaten ditugu**




**Tel.: 943 74 31 96 • Lerun, 6** (Netto Merkatalgunea)

JOSE MARI
ARANZAMENDI "KATEI"

EDARI BANATZAILEA

GASEOSA PITUSA

INSALUS

eva

San Miguel

San Miguel 0,0

GURELESA

SANTA ANA, 41

☎ 943 74 10 41
Mobila: 659 77 23 89



## ABUZTUAK 30, *eguena*

**19:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Plaza Handian.

# Umeen Eguna

## ABUZTUAK 31, *barixakua*

**10:30 HAURRENTZAKO ENTZIERROA**
Nafarroa Plazatik Plaza Handiraino.

**10:45 ZEZENTXOAK eta PONIAK**
Plaza Txikian. (Euria bada Sigman)



**11:30-14:00 MARRAZKI LEHIAKETA**
Elizako arkupeetan
Gaia: "Zer nahiko zenuke egotea jaietan?"
Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea

**12:00 BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK**
Kalejira.

**14:00 HAURREN BAZKARIA**
Elizako arkupeetan. (Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Edaria eta postreak banatuko dira).



# Egitaraua

**14:30 HAURRENTZAKO JOLASAK ETA TAILERRAK**
Plaza Handian.
(Euria egiten badu Sigman).

**16:30-18:00 ZALDI LASTERKETA IKUSTERA JOATEKO IGOERA ZALGURDIAN**
Madalatik Upaitzako zelaietara.

**18:00 ZALDI LASTERKETA**
Upaitzako zelaietan, Albitxuri Industriguneko goiko aldean.



**18:00 BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK**
Kalejira.

**18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.



**Ondoren, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Mauxitxa Txarangarekin.

**20:00 UMEENTZAKO JAIALDIA LUMA GORRI TALDEAREKIN.**
Plaza Handian.


ESKURA EZAZU TXANKAKUA TXARTELA




TXANKAKUA txartelarekin erosterakoan, puntuak bildu eta opariak irabaziko dituzu.

Puntuen katalogoa

→ Doan da.
→ Erosketak hiru hilabetetan zehar ordaintzeko aukera inolako interesik gabe.
→ Zuk nahi duzun Banketxean helbidera dezakezu.

| | |
|---|---|
| AGIRRE SASTRERIA | 740341 |
| APRAIZ LURRINDEGIA | 740744 |
| ARANBURU BITXIDENDA | 742535 |
| ARAURI LURRINDEGIA | 741789 |
| ARRIETA MODAK | 740849 |
| AZKUE ARGAZKI DENDA | 740848 |
| AZPELETA ELEKTRIZITATEA | 741238 |
| CASA ASTIGARRAGA | 743268 |
| DORI URDAITEGIA | 741192 |
| ECENARRO MERZERIA | 742619 |
| EIZAGUIRRE OKINDEGIA | 740468 |
| FARMA APRAIZ | 743608 |
| FERPI MODAK | 740815 |
| GARATE JANTZI-DENDA | 741129 |
| GARBIÑE ESTETIKA | 743132 |
| GOFI | 744653 |
| GOIARA DROGERIA | 741133 |
| IDARRAGA KAFEAK | 740533 |
| IKUS OPTIKA | 743734 |
| IRIONDO ALTZARIAK | 741234 |
| IRIONDO KIROLAK | 740968 |
| KALA LORADENDA | 744516 |
| KARKIZANO | 740549 |
| LA INDUSTRIAL GUIPUZCOANA | 740139 |
| LAGUARIN OKINDEGIA | 637512224 |
| LANBROA | 740806 |
| LANDA HARATEGIA | 742758 |
| LAZTANA HAURRAK | 740091 |
| LEIGAR ELEKTRAGAILUAK | 740054 |
| LETE | 744199 |
| LOMBOK | 531068 |
| LUVIK OINETAKOAK | 744345 |
| MG BURDINDEGIA | 740831 |
| MURUAMENDIARAZ | 740345 |
| NATURHOUSE | 741078 |
| ORTOPEDIA ITZIAR SARASKETA | 743562 |
| OSORO OINETAKOAK | 740235 |
| OSTARKU ARGAZKI DENDA | 740646 |
| PATXI HARATEGIA | 743504 |
| PIPES | 740407 |
| PITXINTXU | 743208 |
| SARA JANTZIDENDA | 743555 |
| SIGLO XXI | 742308 |
| SKANDALO OIHALA ETA MERZERIA | 743595 |
| SOFTLAN | 748106 |
| SUMOFIC | 744102 |
| URKIDI AHOLKULARITZA-ASEGURDAK | 741891 |
| UZURI OPTIKA | 740359 |
| XIGORTZE OPARIDENDA | 744341 |
| ZAZPI INFORMATIKA | 743787 |
| ZELETA BARAZKIAK | 743092 |

Diru laguntzailea:
EUSKO JAURLARITZA
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

ETXEPE
MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
LAN BEREZIAK
Ibaitarte Industrialdea, A2
Tel.943 74 12 97 - 74 06 64
Faxa 943 74 43 21
e-posta: etxepe@etxepe.com
Web orria: www.etxepe.com

Imprenta Arrillaga
Ondo pasa jaiak!!
Trenbide Kalea, 13 - behea, - 29 Posta Kutxatila 20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 74 01 87 - Faxa: 943 53 13 54 - Mugikorra: 677 42 55 60
e-posta: arrillagaoi@euskalnet.net

LAGUN ARO
ASEGURUAK
Euskadiko Kutxa Taldekoa
Ondo pasau jaixak!
Santa Ana, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel. 943 74 73 70
Fax 943 74 10 51
ygarcia@seguroslagunaro.com

PILAR IKASTETXEA
Elgoibar
San Bartolome jaietan alaitasuna eta anaitasuna.



# Egitaraua

## Gazteen Eguna

### IRAILAK 1, *zapatua*

**8:00 DIANA**
Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA eta TXORIZOA**
Zubi-Ondo, Gure Bide, Karakate eta Herri Gain elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:30 KARTS ERAKUSTALDIA**
Trenbide kalean hasita



**Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA.**

**16:00- 18:30 FUTBOL PARTIDUAK ZEZEN ENBOLATUEKIN**
Plaza Txikian.
Antolatzailea Zuhaitz Aisialdi Taldea.

**19:00 ZO ZONGO FANFARREAREKIN KALEJIRA**

**23:00 "RESAKA" ETA "REINCIDENTES" TALDEEN KONTZERTUA.**
Plaza Handian.



### IRAILAK 2, *domekia*

**9:00 MOTORREN KONTZENTRAZIOA**
Plaza Handian.
Ondoren, 80 km-ko ibilbidea egingo dute motorrean.

**14:30 BAZKARIA** Sigman.

### IRAILAK 5, *eguaztena*

**19:00 ASOBAL LIGAKO TALDEEN PARTIDUA.**
Arrate-Logroño.
Olaizaga kiroldegian.

# Iriondo taberna

Mila esker
elgoibartar guztioi
eta
ondo pasa jaiak!



API
Burtsa informatikoa



GABILONDO
317 api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo

Jai zoriontsuak denoi

Errosario kalea, 21 • ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

IMH
Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

Ondo pasa 2007ko San Bartolome jaiak!



www.imh.es

Euskadi


Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27
EHORZKETA
ETXEBERRIA, S.L.
BEILATOKIA
Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR
Tel: 943 741 656 / 943 740 117
Mugikorra: 635 75 62 95
E-posta: tanaetxe@terra.es


ARNOPE
NAVA
INPRIMATEGIAK
ARNOPE
Jose Mª Altzibar, 6 - II. Blokea
Telf. eta Faxa: 943 603 194
e-mail:arnope@terra.es- 56
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)
NAVA
Santa Ana, 44 - 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
e-mail:nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)


IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES,S.L.
Makina bereziak
Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L
Tel.: 943 74 44 66 • Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net


Muruamendiaraz
ELGOIBAR
Jai gozo-gozoak
herritar guztioi!
MURUAMENDIARAZ gozotegia · San Bartolome, 34-35 · Tel. 943 740 345


MAPFRE
Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07
E-posta: patxiza@mapfre.com

GOKI ERREFORMAK S.L.

Honako Instalazioetan baimendutako enpresa:

Klimatizazioa
Berokuntza
Gasa
Iturgintza
Erregai Jikidoak (Gasoleoa)

EGUZKI - ENERGIA



ERAKUSKETA

Bainugelak
Ateak
Lurrak

OBRAK ETA PROIEKTUAK

Aroztegia
Fatxadak
Teilatuak

goki@gokierreformak.com · www.gokierreformak.net

Olaso pol., 15-68 Pb. ELGOIBAR • Tel. **943 74 28 80** / 943 74 42 23 / 943 74 46 40 - Faxa 943 74 45 87



ELGOIBARKO ERREHABILITAZIO FUNTZIONALA

ERREHABILITAZIO ZENTRUA

MUTUA-ASEGURUAK ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

CRF

MEDIKU ERREHABILITATZAILEA: DRA. MARIA ETXANIZ

- Fisioterapia Espezializatua
- Errekuperazio Funtzionala
- Masoterapia
- Osteopatia
- Gorputz Balorazioa
- Kirol Fisioterapia
- Hidroterapia
- Amatasun Prestakuntza

Inkontinentzia
Logopedia, etab.
(CRF/ Eibar)





San Inazio, 2
ELGOIBAR
Tel./Fax: 943 74 33 74

ELGOIBARKO ERREHABILITAZIO FUNTZIONALA

# On Informatika-REN ESKUTIK

## INTERNET: GURASO ETA SEME-ALABENTZAKO AHOLKUAK

**Tresna interesgarria eta baliagarria da internet. Hori bai, gaziki erabiliz gero, tresna arriskutsua bilakatzen da. Gaur egungo erabiltzaileak gero eta gazteagoak dira, umeak oso gaztetatik hasten dira nabigatzen eta gurasoak kezkatuta egoten dira. Seme-alaba eta gurasoak interneten modu egokian ibiltzeko hainbat aholku ekarri dizkigu gaurkoan On Informatikak.**

**Gurasoentzako dekalogoa:**

• Pertsona heldu bat etxean dagoenean bakarrik laga seme-alabei interneten nabigatzen.

• Ez jarri ordenagailua seme-alaben logelan, eta jartzen bada, pantaila atera begira jarri.

• Seme-alabek ordenagailuan ibiltzeko daukaten maila bera edukitzea komeni da, jakin dezaten egiten dutena kontrolatzeko gaitasuna daukagula.

• Umeak ibili ezin diren web guneetarako sarbideak babestu.

• Seme-alabekin interneteko nabigazioari buruz hitz egin, zein orrialde bisitatzen dituen jakiteko.

• Txatean sartzen denean esan behar zaio ezin dituela telefono zenbakiak eta helbideak eskatu, ezta eman ere. Bere burua identifikatuko duen edozein informazio ezkutuan mantendu behar duela erakutsi behar. Alarmarik sortu gabe, ezezagunekin txateatzeak dauzkan arriskuak azaldu.

• Gauez interneten, eta batez ere, txateatzen ibiltzea ekidin behar da.

• Noizean behin seme-alabekin txateatu, sarean erabiltzen dituen elkarrizketak ikusi eta konfiantza hartzeko.



• Ahal dela, seme-alabek euren helbide elektroniko partikularra edukitzea saihestu.

• Seme-alabekin interneten ibiltzeko arauak adostu, inposatu gabe.

**Zibernauta gazteentzako aholkuak**

• Gauza asko jakin nahi dituen pertsonekin ez fidatu. Ez eman inoiz zuri edo familiari buruzko informaziorik.

• Zerbait arraroa jasotzen baduzu, esan berehala gurasoei.

• Internet bidez ezagutu duzun norbaitekin zita egiten baduzu, gurasoei abisatu nora zoazen.

• Ordaindu beharreko web guneetan ez sartu.

• Adin txikikoak sartu ezin diren orrialdeak ez bisitatu.

On informatika
Upaiz Zaharra 6
943 741 846
www.oninformatika.com
on@oninformatika.com

ZAZPI INFORMATIKA
zazpi@telefonica.net
Pedro Muguruza, 8 behea
Tel./Faxa: 943 74 37 87

MICRO SYSTEM INFORMATIKA
DENDA
Lerun industrialdea, 6
ZERBITZU TEKNIKOA
Jausoro Plaza, 3
ELGOIBAR
Tel.: 943 74 02 40
E-posta: info@elgonet.es

Softlan analisia & programazioa
Antonio Arrillaga, 1
Tel.: 943 74 81 05
info@softlan.biz
www.softlan.biz

### GUNE ASKATUA

# Festak beste modu batean pasatzeko

Madalako jai Batzordeak egitarau alternatiboa prestatu du aurtengo San Bartolome jaietarako. Madala da beraien gunea eta bertan izango dira ekitaldi gehienak. Udalak antolatutako programarekin zerikusirik izango ez duten jai alternatiboak antolatu dituzte, San Bartolomeak beste modu batean pasatzeko aukera eskainiz.

Jaiak ez dira programa ofizialarekin batera hasiko. Azken urteotan ohiko bihurtu den ohiturari eutsiz, arratsaldeko 18:00etan emango zaie hasiera San Bartolomeei Gune Askatuan, Napoka Iria taldearen kontzertuarekin. Une horretatik aurrera, festa giroa izango da Madalako parkean.

## Aironfest

Sorpresa bikaina hartu dute herritar askok Aironfest kontzertua izango dela entzuterakoan. Duela zenbait urte, fundizioko lokal zaharrean hasi zen festa hau. Abuztuaren 22an egiten zuten, San Bartolome bezperaren aurreko egunean. Elgoibarko musika talde desberdinetako partaideak elkartu eta beraiei gustatzen zitzaizkien musika taldeen bertsioak abesten zituzten. Iron Maiden taldearen jarraitzaileak ziren gehienak, eta talde britainiarraren abestiak kantatzen zituzten, batez ere. Fundizioko lokaletik Madalako parkera atera ziren urte batean, eta kontzertu arrakastatsua eskaini zuten. Heavy musika zaleek gozatu ederra hartu zuten gau hartan.



Aurtengoan, badirudi kantatzeko gogoz ditugula berriro ere. Hellgoibar, Arima Beltza eta beste hainbat taldeko kideek Aironfest kontzertua eskainiko dute gaur gauean, Madalako parkean.

Eta hori gutxi balitz, Madalako Jai Batzordea berrikuntza ausart batekin datorkigu aurtengoan. Aironfestarekin giroa berotu ondoren, herritarren kanturako abilezia jarriko dute jokoan, elgoibartarren lotsa zein mugataraino iristen den neurtuko dute Karaokearekin. Kantuak aukeratu eta izena aurrez ematea gomendatzen dute. Gaur gauean, beraz, lotsa etxean lagata atera kalera!

## Txiki Eguna

Txiki Eguna handia izaten da, eta Madalako Jai Batzordeak ere badaki. Herritarrentzako eguna da hau, horretarako presoen aldeko herri bazkaria antolatzen dute. Egun honetan alaitasuna da nagusi kaleetan, ur eta ardo artean, umorez blai

URKIOLA

Jaiak zuekin ospatzeko prest!

San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 74 20 73




bukatzen du jendeak. Dantzarako gogoa sartzen da gorputzean, eta horretarako, Beste Bat taldearen emanaldia izango dugu, arratsaldetik gauera arte. Herria dantzan jarriko da.

**Gazteen Eguna, ostiralean**

Azken urteotako tradizioari eutsiz, Gune Askean barixakuan izango da Gazteen Eguna aurten ere. Berdin zaie Udalak zer esaten duen, Madalan abuztuaren 31n ospatuko da Gazteen Eguna. "Gaztiok bai!" lemapean, ez da aspertzeko denborarik izango.

## GUNE ASKATUA EGITARAUA

**Abuztuak 23**
San Bartolome bezpera
18:00 **Jaien hasiera Napoka Iria bikotearen kontzertuarekin**
Gauean, **Aironfest kontzertua: Elgoibarko musika talde desberdinetako kide batzuek (Hellgoibar, Arima beltza...)**
Ordu txikitan, **Karaokea. (Kantuak aukeratu eta izena emateko arratsaldetik egongo da aukera).**

**Abuztuak 24**
San Bartolome eguna
20:00 **Enkartelada Madalan "Amnistia eta askatasuna"**
Gauean **kontzertua: Itaka, Sogo eta Txato Plato taldeekin**

**Abuztuak 25**
Baserritarren eguna
20:00 **Trikitilari eta bertsolariak Hamaika Bertutekoen eskutik**
Gau osoan, **Filobiblion Sound Sistem eta Lolo Ferrary experience-en eskutik musika.**

**Abuztuak 26** Jubilatuen eguna
19:00 **Mus lehiaketa. Izen ematea txosnetan.**

**Abuztuak 27** Txiki Eguna
15:00 **Bazkari herrikoia. Tiketak presoen aldeko txosnan salgai.**
Arratsaldean, **dantzaldia Beste Bat taldearekin gauera arte.**

**Abuztuak 31** "Gaztiok bai!"
11:00 **II. patata tortila lehiaketa.**
15:00 **Bazkaria**
Ondoren, **Gin-kana**
20:00 **Enkartelada Madalan. Hileko Azken Ostirala. Antolatzailea Etxerat.**
Gauean, **Kontzertua**

**Irailak 1**
19:30 **Manifestazioa Madalatik: "Eskubide guztien jabe presoak etxera"**
Ondoren, **herriko presoen senideei omenaldia Madalan.**
Gau osoan, **DJ Bull-en musika.**

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea • Tel.: 943 53 12 79
Ondo pasau jaixak!
Asteartea jubilatuen eguna:
Orraztu 7 €
Garbitu, moztu eta orraztu 14 €

KART ERAKUSTALDIA

# Kart: kotxe txikiak baina bizkorrak

Gazteen Egunean Kart erakustaldia izango dugu. Goitibehera jaitsieraren ondoren, leku berean arituko dira pilotuak euren abileziak erakusten. Trenbide kalean hasi eta Erretxindiko zubiraino igoko dira. Kotxe txikiak baina bizkorrak dira Kart-ak. Pisu gutxi daukate eta abiadura bizian ibiltzen dira. Ibilbide laburra daukate, baina errebolta ederrak daude bertan, eta hortxe erakutsi beharko dute pilotuek egiten dakitena.



## 10 PILOTU

Euskal Herriko eta Gaztelako 10 pilotu etorriko dira Kart erakustaldira eta horietako bat elgoibartarra izango da; Ion Gonzalez. Berarekin hitz egin dugu, eta esan digunez, ilusio handia egiten dio herrian parte hartzea. Bere esanetan, karting-erako afizio gutxi dago Euskal Herrian, ez omen dago leku aproposik karting-a praktikatzeko eta gainera ez da txapelketarik antolatzen: "jendeak txapelketak nahi ditu eta hemen ez dira antolatzen, kanpora joan behar izaten dugu. Gaztelan esate baterako, zaletasun handia dago" . Ion Gonzalez Gaztelako txapelketan parte hartzen ari da eta denboraldi ona egiten ari dela kontatu digu: "4. edo 5. Postuan nago sailkapen nagusian. Urrian bukatuko da txapelketa eta postu ona eskuratuko dudala uste dut".

## ANTOLATZAILEEN GOMENDIOAK

Antolatzaileek herritar guztiak animatu nahi dituzte jarduera honetara. Urte asko dira Elgoibarren honelako ekintza bat antolatu zenetik eta ondo ateratzen bada, datozen urteetan zerbait gehiago egitea da euren asmoa. Anton Garaik esan digunez, Euskal Herriko txapelketa antolatzea da euren nahia, eta horretarako jendearen babesa behar dute. Dena dela, gogoratu nahi dute Kart-ak arriskutsuak direla, batez ere, hartzen duten abiaduragatik. Beraz, ikustera gerturatzen diren herritarrei antolatzaileek esandakoa egiteko eskatzen diete: "ekitaldia ondo ateratzeko denon kolaborazioa behar dugu".

Gazteen egunean, beraz, motor zaratak eta gasolina usaina izango dira protagonista San Rokeko aldapan.

Brochados y planeados
albe S.L.
LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
ONDO PASAU FESTETAN!
Sigma Industrialdea · Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

talleres ZAILDU S L
MAKINARIA KONPONKETAN ESPEZIALISTAK
Mandrinadorean planoekin egindako lanak
Fresadora, Taladroa, Tornoa eta Errektifikadora
San Bartolome
jai zoriontsuak
elgoibartar guztioi!
Santa Klara, 40 – Tel: 943 74 07 60 – Faxa: 943 74 39 95
zaildu@zaildu.com


URZELAI
Elektrizitatea
Argiztapena
Santa Ana, 12 - 14
Tel.: 943 74 13 76
Mugikorra: 608 77 40 32


HIZKUNTZ
SOLUZIOAK
ILSn Hizkuntza Ikastaroak
Ingelesa, Frantsesa, Alemana, Italiera, Txinera
· Enpresetan taldeak
(helburu, ordutegi arabera neurrira eginak)
· Modulo Komertzial eta Teknikoak
(Ingelesa, Frantsesa, Alemana)
· "One to One" banakako eskolak.
· ILS-en ikastaro irekiak, mailaka
(Urritik Ekainera)
· Atzerrian egonaldiak
Hizkuntza guztietan itzulpenak
Makina Herramintan adituak
Esperientzia zabala duen lan taldea
· Eskuliburuak
· Katalogoak
· Web orriak
· Testu Komertzialak
· ITZULPEN JURATUAK
Ondo pasa jaiak!
INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES
www.ils.es
Azkue Auzoa, 1–P.K. 37
E–maila: ils@ils.es
Tel.943 744 040 Faxa: 943 741 654



EL GAUTXO
Txiki Egunerako menua:
• Entsalada
• Oilaskoa papatekin
• Tarta izozkiarekin
• Kafea
15 €
(Edaria aparte)
bokatak
entsaladak
pizzak
gozoak
Jai zoriontsuak guztioi!
Errosario, 31 • ELGOIBAR • Tel.: 943 53 17 71




ZELETA BARAZKIAK
NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA
▪ Landareen produkzioa
▪ Laborantza kontrola
▪ Eskuz eginiko aukeraketa
▪ Banaketa
▪ Bertako produktuetan erantzunik gertukoena
Jai zoriontsuak!
Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu
EUSKAL BASERRI
ZELETA BASERRIA
San Migel auzoa ELGOIBAR
Tef.: 609 35 76 19
www.zeletabaserria.com

JAIETAKO MUSIKA

# NOLA SOIÑUA, HALA DANTZA

*Hala dio esaera zaharrak eta soinuaren araberako dantza izango bada jaietan mota askotako erritmoak ikusiko ditugu plazan, Madalan zein herriko kaleetan. Lasaiak batzuk, gogorrak besteak; dantzagarriak zein entzutekoak. Musika aukera zabala jaietako zati handi bat horrek betetzen du eta, musikak.*



## Napoka iria

**Abuztuak 23, 18:00 Gune Askean**

Miren Narbaiza eibartarraren ahotsa eta gitarra doinuak Ander Mujika elgoibartarraren gitarrarekin uztartuta entzun ahal izango dira San Bartolome bezperan Madalako Gune Askean. Grunge eta rock erako doinuak ukitu akustikoarekin, hori da bikote honek eskainiko duena. Jaiak lasai antzean musika lagun hasi nahi dituztenentzat aukera egokia.

## Aironfest

**Abuztuak 23, gauean Gune Askean**

Elgoibarko hainbat musika taldetan (Hellgoibar, Arima Beltza...) diharduten edo jardun duten musikariek Iron Maiden taldearen bertsioak joko dituzte. Doinu gogorrak, beraz, jaietako lehen gaua modu indartsuan hasteko.

## Neurotika eta Betagarri

**Abuztuak 23, 23:00 Plaza Handian**

Bilboko taldea da Neurotika Arantza (baxua eta ahotsa), Pedro (gitarra eta koruak), Diego (baxua) eta Jimik (bateria) osatua. Bi maketa dituzte kalean eta Elgoibarko kontzertuan punk eta rock doinuak joko dituzte baita baladak ere.

Betagarri Gasteizko zortzikoak ska, rock eta reggae doinuak eskainiko dituzte plazan. Ahotsa, gitarra, baxu eta bateriarekin batera haize instrumentuekin doinu dantzagarriak joko dituzte jaia eta abestien letren konpromiso giroa uztartuz. Besteak beste Hamaika gara euren azken laneko kantuak entzuteko aukera izango da.



## Udal Musika Banda

**Abuztuak 24, eguerdian Plaza Handian**

Urteroko ohiturari jarraituz patroiaren omenezko egunean, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean. *La gracia de dios* pasodoblea, *Los alegres bandidos* obertura, *Doña Francisquita* fandangoa, *Aires vascos nº2* euskal doinuak eta John Williamsen aukeraketa joko dituzte. Bestalde, Udal Musika Bandak dantzarako doinuak eskainiko ditu abuztuaren 30ean Plaza Handian 19:30ean antzinako eran jendea dantzara anima dadin.





## Duo plaentxi eta Mensajero de Irapuato mariatxiak

**Abuztuak 24, 23:30 Plaza Handian**

Bikote oso ezaguna da Elgoibarren Duo Plaentxi. Urizar eta Badiolaren ahots indartsuekin eta euren abesteko modu bereziarekin gozatuko dute plazara gerturatzen direnek. Ukitu mexikarra izango du San Bartolome gauak dudarik gabe. Mexiko erdialdeko Guanajuato estatutik etorritako Mensajero de Irapuato mariatxiek Duo Plaentxikoen ostean kontzertua eskainiko dute. Gainera, Guadalajara hiriko (Jalisco) ballet folklorikoa izango dute lagun.

## Itaka, Sogo eta Txato plato

**Abuztuak 24, gauean Gune Askean**

Zarauzko Itaka taldeak stoner eta rock doinu gogorrak ekarriko dituzte gurera, tartean tartean erritmo lasaiagoak sartuz.

Bilboko Sogo seikotea rock melodiko taldea da. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez abesten dute eta hainbat musika mota nahastu: rock-a, pop-a, metala, erritmo Karibearrak...

Markina-Xemeindik dator Txato Plato taldea eta euren musika entzun dutenek punk xelebrea egiten dutela diote. Taldekideen asmoa da eurek eta entzuleek ondo pasatzea eta kantuak euskaraz abestuz horretan saiatuko dira Joni (bateria), Kenari (gitarra), Egia (baxua), Juanka (kontrabaxua) eta Maizte (ahotsa).



## GOLDEN APPLE QUARTET

**Abuztuak 25, 23:00 Plaza Handian**

Loiola Garmendiak, Eduardo Errondosorok, Manuel Romanok eta Enrike Otxoak osatutako laukote donostiarrak hasieratik landu dituzten *godspel* doinuak beste estilo batzuekin nahasian eskainiko ditu. Argi eta soinuz betetako euren emanaldian umorea izango da nagusi, bertaratzen direnek kantuan ari direla ahaztu eta ikuskizunarekin gozatzeko.

## FILOBIBLION SOUND SISTEM ETA LOLO FERRARY

**Abuztuak 25, gauean Gune Askean**

Elgoibarko eta Ermuako bi disko jartzaile dira. Txosna barruan bertan diskoak jartzen jardungo dute gauean barrena. Ska eta punk-rock musika entzuteko aukera eskainiko dute.

## PATXI ETA KONPAINIA

**Abuztuak 26, 22:30 Foruen plazan**

Patxi Perez dantzariaren inguruan moldatuta, musika herrikoia eskaintzen duen talde honen helburua da dantza eta musika festara gerturatzea. Horretarako, dantza erakustaldiarekin hornituko dute kontzertua Euskal Herriko zein beste herrialde batzuetako dantzak elkartuz eta entzuleak dantzaldira gonbidatuz.



## BESTE BAT

**Abuztuak 27, arratsaldean Gune Askean**

Neska eta mutilez osatutako talde gazteak trikitia oinarri hartuta denetariko kantuak jotzen ditu; fandango eta arin-arinetatik hasi eta doinu modernoagoetara bitarteko abestiak. Trikitia, panderoa, bateria, baxua eta gitarra astinduz eta ahotsa kantuan ipiniz denetariko euskal kantuak entzuteko eta erromeria giroan dantzatzeko aukera eskainiko digute Txiki Egunean Madalan.



## MCKENSY'S CLAN BAND

**Abuztuak 27, 19:00 herriko kaleetan**

Boskote eskoziar honek kalejira egingo du musika, antzerkia, malabareak eta animazioa uztartuz. Gaita, flauta eta perkusioarekin Eskoziako musika eskainiko dute beti ere umore giroan eta kaleko jendea zirikatuz eta euren kantuekin dantza egitera animatuz.

## EGAN

**Abuztuak 27, 22:30 Plaza Handian**

Xabier Saldias kantari azpeitiarra buru duen taldeak ohiko erromeria giroari kutsu modernoa eman eta taldearen beraren abestiez gain, doinu ezagunen euskarazko bertsioak ere eskainiko dituzte. Abesteaz gain, txikienei taula gainera igo eta kantatzeko aukera ere ematen diete Eganekoek. Baita, musikariekin batera jarduten duten dantzarien pausuak jarraitzeko aukera ere..


BIKAIN
AHOLKULARITZA

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate-aholkularitza

Tel./Faxa: 943 74 45 57
e-posta: bikain@fonocom.es

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 **ELGOIBAR**

## Luma Gorri

**Abuztuak 31, 20:00 Plaza Handian**

Umeentzako dantzaldi dibertigarri honen bidez Txorro Morro taldekoekin batera Luma Gorri tribuko kide izango dira haurrak. Jolasak, herriko dantzak, abestiak eta biribilketak egingo dituzte, guztia apaingarriz hornituta. Totem handi bat ipiniko dute plazan, baita gurdi bat ere. Musikari eta dantzariak jantzi alai eta argi bereziekin ongi pasatzeko gogoa kutsatuko diete herriko txikienei.




## ZO ZONGO

**Irailak 1, 19:00 Herriko kaleetan**

Oiartzungo perkusio taldeak herriko kaleetan barrena kalejira egingo du. Tinbal eta danbor hotsekin, batuka erritmo dantzagarriekin alaituko ditu entzuleak.




## DJ Bull

**Irailak 1, gauean Gune Askean**

Jon Gurrutxaga irurarra, DJ Bull izenez ezagunagoa, Euskal Herriko leku askotan da ezaguna bere diskoekin giroa ipintzen duelako. Mota askotako musika nahasian ipiniko du Madalako txosnetan ordenagailua erabiliz eta jendea dantzan jartzen ahaleginduko da.

## Resaka eta Reincidentes

**Irailak 1, 23:00 Plaza Handian**

Bixamonik gabe baina entzuleengan parranda arrastoa lagatzeko asmoz etorriko da talde bilbotarra. Kontzerturik eman gabe denboraldi bat pasa ostean hamar urteotan egindako lana erakutsiko dute plazan rock, punk zein metal doinuekin.

Euren ostean jardungo du Sevillatik etorritako Reincidentes taldeak. Punk eta rock doinuetan egungo gizartea kritikatzen duten abestiak entzungo ditugu. Askotariko gaiak lantzen dituzte, aborto eskubidea, Israel eta Palestinako gatazka... Kantautore ezagunen abestien bertsioak ere egiten dituzte. boskoteak besteak beste *Dementes* euren azken laneko kantuak eskainiko dituzte plazan.



Ondo pasa jaiak!
IRATXO
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 · Tel. 943 74 02 57

AZPELETA elektrizitatea
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK
Ondo pasa Jaiak!
San Frantzisko 51, behea. Tel: 943 74 12 38

OLASO
TABERNA-JATETXEA
Gosariak - Menuak...
Jai zoriontsuak!
Olaso Industrialdea, 15 · Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07

# Atzera begira



**1970**. urteko San Bartolome Txiki Egunean ateratako argazkia dugu hau. Garai hartan oso ohikoa zen tankera honetako erretratuak ateratzea. Argazkilariak herriz herri ibiltzen ziren, jairik-jai, testuinguru desberdinetako fondoak jarriz argazkiak ateratzen. Boskote honek ere atera zuen, eta dudarik gabe, festetako oroigarri polita izaten zen. Festarako apropos jantzita atera ziren denak kalera. Jantzi zuriak, gerriko, zapi eta txapel gorriarekin. Erretratuan ikusten ditugun gehienak elgoibartarrak dira, baina neskatxa bat azkoitiarra da, argazkian azaltzen den mutikoaren lehengusina, hain zuzen ere. Garai hartan ohitura zeukaten Elgoibarko senideak bisitatzera etortzeko. Gaur egun ere, kanpoko senide asko etortzen da Elgoibarko festetara. Gogora ditzagun zein diren argazkiko protagonistak:
Ezkerretik eskumara: **Marisol Zubizarreta, Anjelines Mendizabal, Jose Luis Alonso, Karmele San Martin eta Sorkunde San Martin.**


AZALEA
edergintza
Orain **mikropigmentazioa** eta **laser depilazioa** ere egiten dugu
Trenbide kalea, 3 - Tel. 943 74 03 10

- Kontabilitatea
- Asesoria fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak

ASESORIA GOAR
San Bartolome, 2
Tel: 943 74 26 74 / Faxa: 943 74 21 29
asesoriagoar@euskalnet.net

LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA
Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!
Zatoz informazio eske!

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Ezenarro arotzerixia**
Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Pinturak

**Blok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibamar**
Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Pelo**
Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com

# Belaustegi Baserria JATETXEA

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02



*Zatoz San Bartolometako menua dastatzera!*







Portxe-jardinean bazkaldu edo afaltzeko aukera.
Ostiral eta larunbatetan, gaueko 10etatik aurrera kopak jardinean.


EAJ
PNV
Jai zoriontsuak!


San Bartolome jai zoriontsuak!
Elgoibarko Udalaren izenean
ELGOIBARKO UDALA